



Elikagai-bilketa arrakastatsua

Pasa den astean egin genuen deialdiari erantzunez, asko eta asko izan zineten astelehenean ikastolara Moriarako elikagaiak ekarri zenituzten familiak. **ESKERRIK ASKO** zuen elkartasunagatik!



Zerbitzuetako txartelak

Irailaren 18 atarian adierazi genizuen zerbitzuetako txartelen inguruko erabakia atzeratu egingo genuela erabiltzaile kopuru egonkorra eduki arte. Urria iritsi da, eta jasota dugun informazioa aztertuta, erabaki dugu hemendik aurrera txartelak erabiltzeko aukera eskainiko dugula zerbitzuetan ([info+](#)).



Euskaraldia

Gero eta gutxiago falta da azaroaren 20an Euskaraldiaren 2. edizioa abiatzeko, eta dagoeneko ireki dute EUSKARALDIAn izena-emateko epea. Euskararen aldeko ariketa sozial masibo honetan parte hartzera animatu nahi zaituztegu Ikastolako partaide guztiak. Horretarako, euskaraldiaren [webgunean](#) eman behar duzue izena.



OHARRAK / AGENDA:

- **Guraso bilera orokorrak:** Informazio berritua. [Txosten berriak](#) eskuragai.
- **Baimenak:** [Orokorrak](#). Bigarren jolas-orduan ateratzeko [baimena](#) (DBH3-4, BATX1-2).
- **HH3:** Atsedenen eta sarrera-irteeren inguruko [informazioa](#).
- **DBH4:** "Gerta dakizuke" hitzaldiak. Urriak 7-8.
- **DBH1-BATX2:** "COVID19 prebentzio-neurrien tailerra (EHU). Urriak 6-7.
- **HABE C1:** Diru-laguntza eskatzeko deialdia, gainditu zutenentzat. [Zirkularra](#).
- **Eskola-kirola:** COVID19 [prebentzio- eta jarduketa-protokoloa](#).
- **Parketarrak:** [Zirkularra](#). [Kartela](#).
- **Zeu irakurle, gu kontalari (LH1-2):** [Informazioa](#).
- **Jangela:** Urriko [menua](#).

